

# KANALAK

Gure enpresak arrakasta izan dezan, enpresak komunikatzeko modua eraginkorra izan behar da. Gure kasuan bi motatako kanalak erabiliko ditugu, zuzenekoak zein zeharkakoak.

Horrerarako lehendabizi web orrialde bat sortu dugu. Bertan, bezeroek argi ikusiko dute gure enpresan eskaintzen dugun produktua. Interesaturik egonez gero, erraz jarri ahalko dira gurekin harremanetan, izan ere, bertan korreo elektronikoa eta telefono zenbakia jarriko ditugu. Bezeroen zalantzak ere horien bitartez argituko ditugu.

Gaur egungo gizartean sare sozialek duten garrantziari erreparatuz hainbat kontu ere irekiko ditugu: Instagram-en, Facebook-en eta Twitter-en. Hauetan, webean bezala gure produktua azalduko dugu eta diseinu ezberdinak aukeran emango ditugu. Bertan eragina izan dezaketen kontuei publizitatea egin diezaguten ere eskatuko diegu, gure produktua erabili dutenei, jende gehienera iristeko helburua betetzeko.

Horrez gain, aurrez-aurreko tratua ere eskainiko dugu, denda fisikoak irekiko ditugu Euskadiko hiru hiriburuetan: Donostian, Bilbon eta Gazteizen. Honek aukera emango digu bezeroekin gertutasuna edukitzeko eta haien zalantzak argitzeko. Gure produktua bere osotasunean erakutsi eta uler dezaten ere aukera emango digu honek, aurrez-aurre internetetik baino hobe azaldu daitekelako.

Butakak sortzen dituzten enpresekin zuzeneko kanalak erabiliko ditugu, gu izango gara haiekin harremanetan jarriko garenak,. Enpresa horiek interesatuak egongo balira beraien bulegoan edo gure dendetan elkartzeko aukera izango dugu. Horrez gain, produktua erosten duten enpresek gure diseinuak edo diseinu pertsonal bat nahi duten erabaki beharko dute.

Banaketa-kanalari dagokionez, enpresa bakoitzak nahi duen helbidera bidaliko dira produktuak, hasieran Euskal Herrian zehar. Arrakasta izanez gero, eta aurrekontu gehiago edukiz Europa edo mundu osora zabalduko dugu gure banaketa.

